METALA ELA

# GIPUZKOAKO METALEKO HITZARMENA

MOBILIZAZIOAK METALGINTZAN | DONOSTI, 2013ko MAIATZAK

# M24: BORROKA EGUNA GIPUZKOAKO METALGINTZAN

KONBENIO PROBINTZIALA ERREFERENTZIA GARRANTZITSUA DA

## ENPRESAKO KONBENIOA EZINBESTEKO TRESNA DA

**Gipuzkoako metalgintzako langileok 2010 urtean gertatutakoa ondo baino hobeto gogoratzen dugu. Urte horretan Adegi Gipuzkoan lan merkatu berri bat sortzen saiatu zen (konbenioaren ultraaktibitatea mugatu nahi zuen, kaleratzeak merkatu, soldatak ugazaben kapritxoetara jeitsi, eta, azken finean, hamarkada luzez langileok irabazitako lorpen soziolaboral guztiak suntsitu nahi zituen). Orain hiru urte Adegik ez zituen bere helburu zikoitzak burutu, metalgintzako langileok egindako borrokak (ELA sindikatuak sustatutako 7 greba egun historikoak barne) Gipuzkoako patronalak amore ematea lortu baitzuen. Tamalez, orain hiru urte ADEGI-k lortu ez zituen helburuak, 2012 urtean Espainiako Gobernu ultraeskuindarrak (Lan Erreformaren bidez) oparitu dizkio.**

### ENPRESAKO KONBENIOAREN APLIKAZIO LEHENTASUNA

Rajoy Gobernuak inposatutako Lan Erreforma ilunaren alde garrantzitsuenetariko bat **enpresako konbenioaren aplikazio lehentasunaren printzipioa** da. Hau da, enpresako konbenio baten bidez (guztiok dakigunez) sektoreko konbenioetan (estatalak zein probintzialak) ezarritako lan baldintzak hobetu daitezke; haatik, **orain**, Lan Erreforma inposatu zenetik, **enpresa mailan sektoreko konbenioan ezarritako lan baldintzak okertzea ere posible da** (zentzu honetan gogoratu beharra dago Lan Erreforma aurretik sektoreko hitzarmenean finkatutako lan baldintzak okertzea ez zela posible, **lan baldintza onuragarrien printzipioa** indarrean zegoelako, eta printzipio juridiko horrek sektoreko hitzarmenetan finkatutako lan baldintzak derrigorrez betebeharreko lan baldintza minimoak bihurtzen zituela). Enpresako konbenioaren lehentasunaren printzipio hau kontrakoa adostea (edo "pacto en contrario") onartzen ez duen printzipio legala da, eta bere eraginez hitzarmen probintzialak jada ez ditu derrigorrezko lan baldintzak ezartzen. Hau da, Lan Erreformaren ondorioz, hitzarmen probintzialak derrigorrezkoak izatetik erreferentzialak izatera pasa dira (erreferentzia garrantzitsua, hala ere, enpresako negoziaketa ez dagoen sektoreetan -gasolindegiak kasu-, eta erreferentzia erlatiboagoa, beste sektore batzutan). Era berean, ez dugu ahaztu behar 2011 urtean Zapateroren Gobernuak CCOO eta UGT sindikatuekin adostutako Lan Erreformak Konbenio Estatalen lehentasuna (konbenio probintzialekiko) ere inposatu zuela. Beraz, goi partetik (konbenio estatalaren lehentasuna dela-eta), eta behe partetik (enpresako konbenioaren aplikazio lehentasuna dela-eta, kontrakoa adostea onartzen ez duena, gainera) hitzarmen probintzialak edukiz hustutzen ari dira.

### HELBURU NAGUSI BAT: ERREFORMARI ENPRESETAKO ATEAK IXTEA

Zapatero zein Rajoyren Lan Erreformek diseinatutako testuinguru beltz honek enpresako konbenioari hil ala biziko garrantzia ematera derrigortzen gaitu (izan ere, enpresako konbenioa, aplikazio lehentasuna dela-eta, beti ere Lan Erreformen kontrako klausula legalak atxikitu ezkero, Rajoy eta Zapateroren Erreformei aurre egiteko tresna eraginkorrena da). Zentzu honetan, gogoratu beharra dago 2012 urtetik jada Gipuzkoako, Arabako zein Bizkaiko 60 enpresa baino gehiagotan Rajoyren Lan Erreformari eta Zapatero, CCOO eta UGT sindikatuek inposatutako lan baldintzen estatalizazioari aurre egitea lortu dugula (enpresako konbenioei azken Lan Erreformak neutralizatzeko klausula legalak atxikituz). Beraz, lankide hauek Lan Erreformei beraien enpresetako ateak ixtea lortu dute. Hori da. hain zuzen, jarraitu beharreko eredua.

### MAIATZAK 24: GREBA EGUNA METALGINTZAN

Hau guztia kontutan izanik, maiatzak 24ko grebak bide honetan sakontzeko balio behar du. Beraz, konbenio probintzialaren alde borrokatu beharra dago (oraindik Gipuzkoako metalgintzako enpresentzat erreferentzia inportantea delako); baina aldi berean, Rajoyk eta Zapaterok (+ CCOO eta UGT sindikatuak) inposatutako Erreformak neutralizatze aldera, enpresako konbenioetan sakontzen jarraitu beharra dago (hau da, enpresako konbenioari gipuzkoako konbenio probintzialaren artikulatu guztia atxikitu behar zaio, eta Lan Erreformei aurre egiteko klausula legalak ere bai). Soilik horrela lortuko baitugu lan baldintzen prekarizazioa/estatalizazioa ekiditea.

Beraz, M24ko grebak bide horretan sakontzeko balio behar du.

**Lan erreformarik ez!! Eutsi gogor!!**




**ELA sindikatuak maiatzak 24ko grebara oraindik enpresako konbenio baten bidez azken Lan Erreformak neutralizatzea lortu ez dituzten enpresetako langileak deitzen ditu.**

# CONVENIO DEL METAL DE GIPUZKOA

**MOVILIZACIONES EN EL METAL** | **DONOSTI, MAYO DE 2013**

# 24M: DÍA DE LUCHA EN EL METAL DE GIPUZKOA

EL CONVENIO PROVINCIAL ES UNA REFERENCIA IMPORTANTE

## EL CONVENIO DE EMPRESA ES UNA NECESIDAD IMPERIOSA

**Las personas trabajadoras del sector del metal de Gipuzkoa recordamos bien lo ocurrido en el año 2010. Ese año ADEGI intentó crear un nuevo mercado laboral en Gipuzkoa (querían abaratar el despido, limitar la ultraactividad del convenio, bajar salarios al antojo del empresario, y, en definitiva, reducir a cenizas todos los derechos sociolaborales que habíamos conquistado durante décadas). Hace tres años no lo consiguieron, porque la lucha ejemplar de los y las metalúrgicas de Gipuzkoa (confrontación liderada por ELA y que condujo a 7 históricas jornadas de huelga en el metal) obligó a la patronal a renunciar a sus indecentes objetivos. Por desgracia, lo que ADEGI no pudo conseguir hace tres años se lo ha otorgado la ultraderecha española con la Reforma Laboral del año 2012.**

### PRIORIDAD APLICATIVA DEL CONVENIO DE EMPRESA

Uno de los aspectos más importantes de la siniestra Reforma Laboral de Rajoy es el principio de la **prioridad aplicativa del convenio de empresa**. Es decir, mediante un convenio de empresa (como ya sabemos) se pueden mejorar las condiciones de trabajo establecidas en los convenios sectoriales (provinciales o estatales); **pero ahora**, después de la Reforma Laboral, **también se pueden empeorar** (lo cual antes de la Reforma Laboral no era posible, pues regía el principio de las **condiciones más beneficiosas**, en virtud del cual el convenio sectorial fijaba unas condiciones de trabajo mínimas y de obligado cumplimiento). Este principio de la prioridad aplicativa del convenio de empresa (que además no admite pacto en contrario) ha convertido al convenio sectorial en una referencia, más o menos importante, dependiendo de las características de cada sector (una referencia muy importante, por ejemplo, en el sector de las gasolineras, donde no existe la negociación de empresa, y una referencia menos importante en otros sectores). Asimismo, no podemos ignorar que la Reforma Laboral del Gobierno de Zapatero (pactada en 2011 con CCOO y UGT) impuso la prevalencia de los convenios estatales sobre el convenio provincial. Así pues, por arriba (mediante la prevalencia del convenio estatal sobre el provincial), y por abajo, (mediante la prioridad aplicativa del convenio de empresa, que no admite pacto en contrario), están vaciando de derechos y contenidos los convenios provinciales.

### OBJETIVO PRIORITARIO: QUE LAS REFORMAS NO ENTREN EN LA EMPRESA

Este escenario macabro dibujado por las Reformas Laborales de Zapatero y Rajoy nos obliga a otorgarle una importancia vital al convenio de empresa (que debido a su prioridad aplicativa, y siempre que se incorporen las cláusulas antirreforma correspondientes, es el único medio de conseguir un blindaje efectivo frente a la Reforma de Rajoy y frente a la estatalización de las condiciones de trabajo impuesta por Zapatero, CCOO y UGT). De este modo, ahondando en esta estrategia de oposición a las Reformas de Rajoy y de Zapatero, desde el año 2012 se ha conseguido que más de 60 empresas del sector del metal de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa hayan garantizado sus condiciones de trabajo por medio de convenios de empresa con cláusulas legales de blindaje, que impiden la aplicación de la nueva legislación antisocial. Es decir, han logrado que la Reforma Laboral no entre en sus empresas y que el convenio estatal no regule sus condiciones de trabajo. Ése es el camino a seguir.

### EL 24 DE MAYO: HUELGA EN EL METAL

Así pues, la huelga del día 24 de mayo debe ser un paso más en ese camino. Esto es, debemos defender el convenio provincial como una referencia importante para las empresas del sector del metal de Gipuzkoa; pero al mismo tiempo tenemos que continuar avanzando en la consecución del único blindaje efectivo posible ante las reformas de Rajoy y Zapatero: a saber, un convenio de empresa con contenidos salariales dignos, que incluya todo el articulado del convenio del metal de Gipuzkoa e incorpore las cláusulas legales de blindaje frente a las Reformas Laborales.

La convocatoria de huelga en el sector del metal de Gipuzkoa del día 24 de mayo debe servirnos, pues, para profundizar en esa vía.

**Lan erreformarik ez!! Eutsi gogor!!**




**ELA convoca a la huelga del 24 de mayo a todas aquellas empresas donde las Reformas Laborales no han sido neutralizadas por medio de convenios de empresa con cláusulas legales de blindaje.**